



Jaiak

ELORRIO
IZURTZA • 18

anboto

TOKIKOM

Abadiñoko gazte bat atxilotu dute G7aren kontrako protestetan



Durangaldea | Gaztea aske dago, baina irailaren 20an epaitu egingo dute. G7aren aurkako protestak Lapurdiko herri askotan izan dira eta poliziaren presentzia "basatia" izan dela adierazi du Baionan bizi den Aitor Fuentes durangarrak • 6

“Zenbat filmetan dira emakumezkoak zuzendariak? Arazo hori etxean ere badaukagu”

Lara Izagirre
Garizurieta
Zine zuzendaria
27. orrialdea



16 lapurreta salaketa ipini dituzte uztailean eta abuztuan Durangaldean

Durangaldea | 8 lapurreta salaketa ipini dituzte uztailean, eta beste horrenbeste abuztuan. Durangon, Zornotzan, Zaldibarren, lurretan eta Abadiñon erregistratu dira salaketak. Etxebizitza barruan bizilagunik ba ote zen jakiteko, lapurrek itsasgarri marka bat ipini dute hainbat atetan. Abadiñoko Muntzaratz auzoan, esaterako, etxebizitza bloke bateko ate guztiak agertu dira itsasgarriagaz markatuta • 4. orrialdea



“Ofizio hau ez dut lehiaketa moduan hartzen; ez dut bilatzen onena izatea”

Axpeko (Atxondo) Etxebarri jatetxea sukaldaritzaren gailurrean dago. Bittor Arginzoniz sukaldaria 30 urtean ereindakoa jasotzen dabil • 2-3



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.
- Nazionalitate irakaskuntzak.

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
Irailaren 3tik 13ra

Matrikula egiteko ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00

**“Gure
sukaldaritzaren
tradizioak inbidia
ematen du leku
askotan; hori ez
dut aurkitzen
beste toki
batzuetan”**

Bittor Arginzoniz
Etxebarri erretegiko
sukaldaria.

Atxondo | 1960



ATXONDO • SARA GANDARA (TTAP)

**Goizeko lehenengo orduan heldu gara Axpeko Etxebarri jatetxera. Bittor Arginzoniz lanean da jada, amantal eta guzti. Ez da oso elkar-
rrizketa-zalea, baina besoak zabalik hartu gaitu, eta ezin abegitsuagoa izan da. Parajea zoragarria da, bere modukoa.**

Plazer ederra da hemen egotea, toki zoragarria daukazue Axpen. Baserri hau guztiz aldatuko zen gaur egun dena izatera heltzeko, ezta?

Guztiz aldatu zen, orain dela 30 urte. Herriko taberna izan da beti, eta denda ere bai. Edozer saltzen zen hemen. Txikitoak, garbantzuak, abarkak... edozer. Denda txiki bat zen herriko jendearentzat, eta jaiegunetan bertara etortzen zen jende guztia zer edo zer hartzeko, disfrutatzeko. Gero, itxita egon zen 10-11 bat urtean. Eta erdi jausten ere geratu zen. Ugazabak ez ziren ados jartzen salgai jartzeko. Baina txarto zegoela ikusi, eta ados jarri ziren saltzeko. Orduan, neuk erosi nuen. Dena bota genuen, lau hormak errespetatuta; beste dena, behetik gora, berria egin zen.

Gehienez, 40 bat lagunek jateko toki dago?

35-40 gehienez, bai. Sukaldaritza mota hau ondo egiteko, ezin daiteke gehiagorentzat egin.

Sukaldaritza mota hau. Sua. Sua eta Bittor sukaldaria. Nola moldatzen zarete?

Nire aurretik ere jende asko egon izan da mundu honetan bere lana egin duena. Nik egin dudana da kontzeptua apur bat aldatu, parrilaren munduan lan egiteko. Nire-

tzat, kontzeptu horretan hiru puntu daude, nahiko garrantzitsuak: bata da egurragaz lan egitea; bestea txingarrak prestatzea, labe aparte batean; eta hirugarrena, tresneria. Tresneria asmatu beharra egon zen, elikagai asko, orain gutxira arte, pentsa ezinezkoak zirelako parrilan egiteko; hau da, tresneria asmatu edozein elikagai parrilan prestatzeko.

Tresneria berezia da? Ala garai bate-

“

Itxarote-zerrenda nahiko handia dugu. Daukagun tokia daukagu eta ezin dugu jende gehiago hartu”

■

koa ere izan daiteke?

Batzuk garai batekoak daude, baina beste asko berriak dira. Asmatu behar izan zen, adibidez, bere garaian fama handia hartu zuen iragazki moduko zartagin bat, egurraren usaina elikagai guztietara pasatzen uzten duena. Hori, batez ere, elikagai txikiak egiteko izan zen, angulak eta abar, eta bere garaian horretxek hartu zuen garrantzirik handiena. Hortik aurrera, edozein elikagai txiki salteatzeko, arrautza gorringoa egiteko... edozer egin liteke txingar erregaian gainean, tresneria ona badaukazu.

Erraza da zuen jatetxean zita eskatu eta handik gutxira etortzea ala itxarote-zerrenda dago?

Bai, itxarote-zerrenda dago, eta azken urteetan nahiko handia da.

Gero eta handiagoa da, gainera. Daukagun tokia daukagu eta ezin dugu jende gehiago hartu. Bestela, Etxebarri beste gauza bat izango litzateke. Ez dago beste modurik. Erreserbak lau hiletik lau hilerazabaltzen ditugu, eta hor apur bat zuhur ibili behar da mahairen bat hartzeko. Bestela, itxarote-zerrendan jartzen dugu, eta zortea badago deitu egiten dugu, edo, osterantzean, itxaron egin behar da.

Singapurereko sariak, hau da, munduko hirugarren jatetxerik onena izateak, lagunduko du geroz eta jende gehiago erakartzeko?

Horri eskerrak, munduan jende gehiagok ezagutzen zaitu. Zerrenda hori oso garrantzitsua da munduan; jarraitzaile asko ditu, eta horrelako gauzaren bat gertatzen denean, jendeak interes gehiago dauka zure jatetxera etortzeko. Nik beti esaten dut: gauzak ondo egiteko, norberaren lana norberak kontrolatu behar du, eta ez lanak norbera.

Saria banatu zutenean, jendea oso pozik zegoen. Baina Bittor Arginzoniz lotsatuta moduan zegoen, esan berri didazunez, ez zaizkizulako horrelakoak gustatzen.

Ez zait gustatzen. Berez, ez dut ofizio hau lehiaketa moduan hartzen. Niretzat beste edozein lan bezalako da: ahalik eta ondoen egiten duzuna, edo ahalegintzen zarena, behintzat. Ez dut bilatzen onena izatea. Niretzat ez da lehiaketa bat. Parrilan kozinatzean, satisfazioa da nik bilatzen dudana, eta satisfazio hori, ahal bada, mahaira pasatzea, mahaiaren dagoenean jendeak disfrutatu egin dezan eta pozik

alde egin dezan zure jatetxetik.

30 urte hemen. Pozik zaude egindako bideagaz?

Bai, bai, pozik. Baina, egia esanda, bide gogorra ere izan da niretzat. Hutsetik hasi nintzen hemen, ez naiz inongo ikastetxetik etorri hona, ez beste sukaldaritza mota bateko jatetxetik. Astiro-astiro egin dut bidea, nik sentitzen dudana sukaldaritzan. Badakit zer gustatzen zaidan eta lanean jarraitu gura dut, egunero bidea zabalduz, astiro-astiro. 30 urte hauetan nahiko gogorra izan da hori. Azkenean, zuk pentsatzen duzuna egin behar duzu, eta, ahal dela, ez desbideratu zure bidetik.

Nola izan zen? Gaztetan betidanik izan duzu argi sukaldaritza mota hau egin gura zenuela?

Ez, bere sasoian argi nuen nire negozioa ipini gura nuela. Behin negozioa martxan ipinita, konturatu nintzen parrilaren mundua zela gehien gustatzen zitzaidana. Eta horrela hasi nintzen, astiro-astiro.

Erreferenteren bat izan duzu?

Jatetxe honetan sartu orduko, sukaldari bi nituen erreferente moduan: Batetik, Elkano jatetxe-ko Pedro Arregi. Asko segitzen nuen bera. Oso gizon jatorra zen, eta erreferente nahiko garrantzitsua izan da niretzat; batez ere, arrainen munduan. Eta gero, haragiaren munduan, Matias Gorrotxategi Casa Julianekoa ere beste erreferente garrantzitsu bat izan da niretzat.

**Eta zer egiten zenuen, euren jate-
txeetara joan eta kuxkuxean ibili?**

Denetik, bai! (barrez) Eta behar baino lehenago joaten nintzen. Ho-

rrela, jatetxera sartu aurretik, aurreko tabernako terrazatxo batean jarri eta parrilan zelan kozinatzen zuten ikusten nuen. Gero, jatera ere joaten nintzen askotan. Horrela hasi nintzen apur bat ikasten. Hor daude nire lanaren oinarriak. Eta, hortik abiatuta, neurea lantzen joan nintzen astiro-astiro. Eta apur bat eskuratuta neukala ikusten nuenean, beste elikagai batzuekin hasten nintzen probatzen. Izan ere, zergatik ez ditugu, bada, beste elikagai batzuk sartuko parrilan erreboiloaz, legatzaz edo txuleta gainera? Beste elikagai batzuk han sartu eta parrilara eramaten hasi nintzen.

Zer uste duzu daukala Euskal Herriak hain erakargarria izateko munduan?

Tokia, hemen daukagun aberastasuna elikagai askogaz. Beste toki batzuetan aberastasun hau aurkitzea ez da erraza. Eta gero, tradizioa ere aipatu behar da. Gure sukaldaritzaren tradizioak inbidia ematen du leku askotan; hori ez dut aurkitzen beste toki batzuetan.

Honen moduko tokietara datozen bezeroek edozer esateko eskubidea dutela uste dute? Nola kudeatzen da hori?

Txarto; nire aldetik, txarto. Gizarteak ez du soluziorik. Hemen ikusten ditudan gauza guztiak ikusita... oso jende ona dago, baina jakintsu gehiegi ere bai, poltsikoan dirua duena eta zuri eguna izorratzeko prest dagoena. Eta hori ez da posible. Denek dakite denetik, edozer esaten dute ahoa zabaltzen dutenean, eta idatzi ere antzera batera, batere errespeturik barik. Horrek neure onetik ateratzen nau.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
Calefacción
MACOBER
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727


clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría
ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK
{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com
RPS: 145-13

Uztailean eta abuztuan 16 salaketa ipini dituzte Durangaldean etxebizitzetan lapurretan egiteagatik

Durango, Zornotzan, Abadiñon, Iurretan eta Zaldibarren ipini dituzte salaketak; Guztira, zortzi ipini dituzte uztailean, eta beste horrenbeste abuztuan



sartu ahal izateko baliatu duten modua: itsasgarri apur bategaz hari formako seinale bat egitea. Atea eta atearen markoa lotu izan dute lapurrek itsasgarri hariagaz. Arrastoak ipini eta denbora batera haria etenda agertu izan denean, etxean bizilagunen bat ibili dela jakin izan

Bitxiez eta diruaz gainera, ordenagailuak eta telebistak eraman dituzte lapurrek

dute lapurrek. Baina haria eten barik egon izan denean, etxean inor egon ez dela ondorioztatu eta barrura sartu izan dira.

Bitxiak eta dirua

Lapurrek, gehienetan, "bitxiak eta dirua" eraman dutela jakinarazi du Segurtasun Sailak. "Batzuetan, baita ordenagailu eramangarriak, telebistak eta etxetresna elektrikoak ere", gaineratu du. Edozelan ere, ez da bizilagunen kontrako erasorik gertatu. Etxebizitzako atean itsasgarri arrastoak aurkituz gero, 112ra deitzeko gomendatu du Segurtasun Sailak.

Abuztuko egun bakarrean bost lapurreta salaketa erregistratu dira Abadiñon

erregistratu dira. Azken herri honek bost salaketak "egun berean" ipini dituztela eta atari guztietan "itsasgarri arrastoak" agertu direla jakinarazi dio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak ANBOTOr.

Horixe izan da, hain zuzen ere, zenbait lapurrek etxebizitzetara

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Herritarrek oporretan egon bitartean, lapurrek beharrez aritu dira. Uztailean eta abuztuan, guztien hamasei salaketa ipini dituzte Durangaldean, etxebizitzetan lapurretan egitera sartzeagatik edo lapurretan egiten ahalegintzeaga-

tik. Zortzi izan dira uztailean erregistratutako salaketak, eta beste horrenbeste abuztuan. Uztailean hiru ipini dituzte Zornotzan, bi Durango, bi Abadiñon eta bakarra Iurretan. Abuztuan salaketa bana ipini dute Zornotzan, Durango eta Zaldibarren. Abadiñon, oster, bost

Etxebizitzetan bizilagunak bazen ala ez jakiteko, lapurrek itsasgarri marka bat ipini dute hainbat ataritan.

"Konturatu nintzen gure etxebizitza blokeko ate guztiak itsasgarriagaz markatuta zeudela"

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Abadiñoko Muntzaratz auzoa izan da, besteak beste, lapurrek begiz jota eduki duten lekuetako bat. Bertako bizilagun batek itsasgarri arrastoak antzeman zituen abuztu hasieran, eta Ertzaintzari abisua

ematea erabaki zuen. ANBOTO bizilagunagaz harremanetan ipini da eta bere testigantza kontatu dio (bizilagunak gurago izan du bere nortasuna ezkutu mantendu): "Abuztuaren lehenengo astea zen. Kanpoan egun batzuk pasatu eta

gero, etxera itzuli nintzen. Sare sozialetan ikusi nuen oharrak egiten ari zirela, itsasgarri arrastoak zirela eta. Nire etxeko atea behatzea erabaki nuen. Itsasgarri arrastoa zuen. Gainerako bizilagunen atek ikuskatzea erabaki nuen gero. Konturatu nintzen gure etxebizitza blokeko ate guztiak zeudela markatuta, 22 guztira. Ertzaintzara jo eta abisua eman nuen. Bizilagunei eta lagunei idatzi nien gero", azaldu du auzotarrak.



Abadiñoko Muntzaratz auzoan ibili dira lapurrek, besteak beste.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurretan - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko abuztuaren 30a
17. urtea - 773. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

LAGUNTZAILEAK



'Aitxu' Gerediagako jaietan aurrekua azkenengoz dantzatu zuen egunean.



Omenaldiko familia argazkia.

Gerediagako auzokideek omenaldi hunkigarria egin diote Gregorio Urionaguena 'Aitxu' dantzariari

102 urteko abadiñarra aurrekulari legez da ezaguna. Bestalde, Durangoko Andra Mari elizako dorreko erlojua, hainbat urtean geldirik egon zena, konpondu eta zaindu zuen

ABADIÑO • JONE GUENETXEA
Gregorio Urionaguena Arriagak Gerediaga bisitatu zuen Salbadore egunean, abuztuaren 6an. Aurten-go, baina, bisita berezia izan da. Auzokideek, ekitaldi xume baten bitartez, 'Aitxu' omendu zuten, eta Gerediagako juntetxea lepo bete zen. Unai Iturriagak haren bizitzan oinarritutako bertsoak abestu zizkion. Gainera, auzoko dantzariak Agurra

dantzatu zioten. Txalo zaparrada batez erantzun zien publikoak Urionaguenaren berbei: "Sei urtegi hasi eta ahal izan dudan guztietan etorri naiz Salbadore egunean. Aurrekua ahal izan dudan guztietan egin dut. Baina, orain, zahartza-roan, ezin egin! Oso pozik nago hainbeste jende hemen ikusteagaz. Esperantza daukat datorren urtean ere bertan elkar ikusiko dugula".

'Aitxu'-ren bizitza
102 urteko ibilbideagatik Gregoriok ondo merezita du auzotarrek egin dioten omenaldi xumea. 1917an jaio zen, Lebarioko Ola baserrian. Dantza izan da bere pasioa. 6 urte zituela, Salbadore egin zuen lehenengoz Dantzari Dantza. Gerra zibila bizi izan zuen. 20 urtegi Bizkargiko erresistentziara joan zen,

"Oso pozik nago hainbeste jende hemen ikusteagaz. Esperantza daukat datorren urtean ere bertan elkar ikusiko dugula"

20 urtegi Bizkargiko erresistentziara joan zen frontera, eta handik Sollubera

frontera; handik Sollubera, Santo Domingoko aldatsera, Bilboko erreka eta zubiak defendatzera. Logroñoko kuartelean egin zuen soldaduska. 'Batallón de trabajadores nº 18'.

"Bada herri honetan belau-naldi bat guda galdu eta aurrera egiten jakin duena. Gregorio belau-naldi horretakoa da. Ezbehar eta arazo larriak sufritzea tokatu zaion arren, beti zerbait ona atera eta aurrera egiten asmatu du", esan zuen Kepa Bengoa Hamabi Harriko kideak omenaldian.

Gregorioren beste zaletasunetako bat, jubilatuta eta gero, erlojuak konpontzea zen, eta Durangoko Andra Mari elizako dorreko erlojua, hainbat urtean geldi egon zena, konpondu eta zaindu zuen.

Hainbat herritarrek lurretaren lehenengo aipamen historikoa ospatu zuten astelehenean

1072ko abuztuaren 26koa da lurretaren lehenengo aipamen historikoa, eta, hori gogoratzeko, kalean elkartu ziren

IURRETA • EKAITZ HERRERA
Astelehenean 947 urte bete ziren lurretaren lehenengo aipamen historikoa egin zenetik, eta hainbat iurretarrak kalean batu zen egun hura gogoratzeko. Dantzari kalean mahaitxo bat ipini, eta ardo eta gazta banatu zituzten, doan.

Jon Irazabal Gerediaga elkarte-kide iurretarrak esan duen lez, "lurretaren lehen aipamen historikoa 1072ko abuztuaren 26koa da. Nafarroako errege Antso IV.ak Amatzako San Martingo ermita oparitu zion Donemiliaga Kukula-ko (Errioxa) monasterioari".



Lurretarrak astelehenean ospakizunean.

lurretako Udalak auto elektriko bi hartu ditu, alokatze sistema bitartez

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Irailaren bigarren hamabostaldian izango dituzte eskura %100ean elektrikoak diren ibilgailu biak. Hurrengo bost urteetarako esleitu dute kontratua eta 79.636 euroko kostua izango du. Auto bakoitzak 663,63 euroko inbertsioa eskatuko du hileko. Urte batzuetatik hona ibilgailu hibrido bat erabili dute uda-

Bost urterako kontratua esleitu dute auto biak eskuratzeko, eta 79.636 euroko kostua izango du

lean, baina guztiz elektrikoak diren lehenengo ibilgailuak izango dira hauek. Neurri honegaz, udalak ingurumenaren eta Euskadi 2030 estrategia energetikoaren aldeko apustua berretsi du. Azaldu dutenez, azken urteetan arlo horretan eginiko beste jardura batzuei (geotermia udal instalazioetan, LED argiteria...) batu zaie hau.



Omenaldiaren une bat.

Garaiko dantzariak Alex Agirrebeitia txistulari zaldibartarra omendu dute

GARAI • EKAITZ HERRERA
25 urtean Garaiko dantzarien bidelagun izateagatik, Alex Agirrebeitia txistularia omendu dute. Garaiko jaietan egin zioten omenaldia, eta Gontzal Sarrigoitia dantza taldeko kideak ohorezko txapela ipini zion.

"Agirrebeitia zaldibartarra da izatez, baina etxekotzat dugu. Ez du sekula ere hutsik egiten. Zelanbait esateko, Garaiko txistulari ofiziala da", nabarmendu du Sarrigoitia. "Alaia eta konprometitua da. Herrikoren bat ezkontzen bada, hortxe dago beti. Jaietako ekitaldietan, berdin. Baita Lantziegoko herri-tarrekin ekitaldiren bat egiten dugunean ere", azaldu du.

Garaiko nagusien elkarteak irteera antolatu du Balenciaga Museora irailerako

GARAI • JOSEBA DERTEANO
Garaiko San Miguel nagusien elkarteak opor osteko lehenengo irteera antolatu du irailaren 10eko martitzenerako. Goizean Balenciaga Museoa bisitatuko dute, Getarian. Museoak Cristóbal Balenciaga jostun eta moda diseinatzaile ezagunaren bizi-

Izen-ematea irailaren 5era arte dago zabalik eta Garaiko Herriko tabernan egin daiteke

tza errepasatzen du. Ondoren, Zarauzko Txiki-polit jatetxean bazkalduko dute elkarregaz.

Egunpasa horretan parte hartu ahal izateko, Garaiko Herriko tabernan eman daiteke izena, irailaren 5era arte. Prezioa 30 euro da bazkideentzat eta 35 euro bazkide ez direnentzat. Ekimenean gura duten denek parte hartu dezaketela argitu dute nagusien elkarteko ordezkariak.

Frantziako poliziak Abadiñoko gazte bat atxilotu du Urruñan, G7ko goi bileraren kontra egindako mobilizazioetako batean

Irailaren 20an epaituko dute gazte abadiñarra, Baionan

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Frantziako poliziak Abadiñoko gazte bat atxilotu du G7ko goi bileraren aurka egindako mobilizazio batean. Gaur zortzi atxilotu zuten gaztea, Urruñan (Lapurdi), eta hiru egunean izan zuten komisarian, harik eta domekan aske utzi zuten arte. Gaztearen aitak ANBOTOrri baieztatu dionez, irailaren 20an epaituko dute gazte abadiñarra, Baionan, "Urruñako mobilizazioan atxilotu zituzten beste hainbat gaztegaz batera". Oraindik, baina, gaztearen familiak ez daki zehazki zer egozten dioten alabari.

Hainbat hedabidek zabaldu dutenaren arabera, joan den barikuan 200 manifestari inguru abiatu ziren Urruñatik, Biriatu eta Baiona lotzen dituen autobidea blokeatzeko asmoz. Istiluen ondoren, 17 manifestari atxilotu zituzten.

Atxilotutako gazte abadiñarraren aitak adierazi duenez, alabak "tratu egokia" jaso du atxiloaldiak iraun duen denboran. "Aldiz, oso bestelakoa izan zen atxilotetaren



Manifestazio ugari egin dira G7aren aurka. Irudian, Hendaian egindako mobilizazio bat. FOKU

Atxilotetaren unean, agenteek ukabilkada bat eman zioten aurpegian gazteari

unea. Alabak esan digu polizia agenteek ukabilkada bat eman ziotela aurpegian, eta brida batzuekin lotu zizkiotela eskumuturrak. Etzanda eduki zuten eta eskumuturrak minberatuta gelditu zitzaizkion. Polizia agenteei eskumuturrak minduta zituela jakinarazi

Polizia agenteek brida batzuekin lotu zizkioten eskumuturrak, eta etzanda eduki zuten

ondoren, mina pasatuko zitzaiola erantzun zioten agenteek", gaineratu du aitak.

Astelehenean amaitu da abuztuaren 24an Biarritzen hasitako G7koen goi bilera. Mobilizazio, istilu eta atxiloteta ugari izan dira Lapurdiko hainbat herritan.



Aitor Fuentes durangarra (eskuman) G7aren aurkako mobilizazio batean. A.FUENTES

"Poliziaren presentzia basatia izan da, ez dut sekula halakorik ikusi; etengabe izan da helikopteroa gainean"

Aitor Fuentes durangarra Baionan bizi da eta kontrolak "uneoro" izan direla ikusi du

DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

G7koen goi bilera Biarritzen egin arren, indar polizialen presentzia Lapurdiko hiriburuan ere nabarmena izan da. Aitor Fuentes durangarra Baionan bizi da eta gertakarien lekuko izan da. "Etiketetik jaitsi eta kantoi guztietan ikusten nuen polizia, goitik behera armatuta; tanketak ere nonahi zeuden", adierazi du. Baiona Ttipia gainerako guneetatik banatzen du-

ten zubiak "uneoro" eduki dituzte kontrolpean poliziek. Momentu

"Giroa nahiko etsigarria izan da eta jendeari beldurra sartu diotelako da hori"

batzuetan, sartzea debekatua egon da, eta beste batzuetan erdi itxita;

"justifikatu egin behar izaten zen, faktura bat erakutsita-edo, bertan bizi zarela", esan du. Komertzio ia guztia itxita egon dela ere azaldu du, eta kaleak "erdi hutsik" egon direla. "Giroa nahiko etsigarria izan da asteburuan, eta jendeari beldurra sartu diotelako da hori", aipatu du.

Fuentesek ere parte hartu du G7ko goi bileraren kontrako aurkako protestetan.

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

katerin
ardoak
iñaki
uribe

25^{unte}
Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardogia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com



Ostalaritza

gida

anboto

Durango



PLATERUENA Kafe antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus
Egunero zabalik. Menu bereziak,
egunerokoak, taldeentzakoak eta
ospakizunak.

Durango



KOBICA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.

Iurreta



GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta
jaiegunetan rabak.

Durango



URRATS
Juan Antonio Abasolo kalea,3 - DURANGO
Tel.: 946 812 518
Gosariak, bokatak eta pintxoak. Bariku
eta zapatu gauetan hanburesak. Zapatu
eta domeketan babarrunak enkarguz.

Durango



GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384
Plater konbinatuak, hanburesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.

Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetak
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

Durango




MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrea kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alai.

Durango



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.



Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!



Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia



NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Belardenda eta dietetika

OSASYN - ETXEA
BELAR-DENDA eta DIETETIKA

40 urte baino gehiagoko esperientzia

Amaitu dira oporrak.

Pisua jaisteko metodoa.

Hartu hitzordua irailaren 2an (astelehena)
konpromisorik gabe

AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO
Tel.: 688 730 694 - osasunetxea@hotmail.com
f Herboristeria Osasun Etxea

Ile-apaindegia



Salón de belleza
M^a Jesús Luque
UNISEX ILE-APAINDEGIA

✉ Kurutzaga kalea, 9 - DURANGO
☎ 946 81 43 89



Nukleo
Amaia Salazar

OSASUN ETXEA I

Badatoz Elorrioko Ferixa Nausikoak. Zein estilo gomendatzen duzu jaietarako?

Zerbait eroso eta beti. Bakoitza bere estiloan, baina tendentziaren aire batez beti.

Jaien aitzakian bezero gehiago izaten duzue ile-apaindegian? Ohikoa da ilea atontzea jaietarako ala gurago izaten dute erosotasuna?

Jaietan lan asko izaten dugu, bai. Beti gustatzen zaigu eder egotea jaiegunetan, eta Elorrioko jaietan, oporren ostean izatera, ohikoa da ilea moztea eta kolorea berritzea. Beraz, sasoi honetan ugaritu egiten zaigu lana ile-apaindegian.



Uda amaitzera doa, eta, zer egin dezakegu ilea berrindartzeko? Eskaintzen duzue horrelako zerbitzurik zuen ile-apaindegian?

Tratamendu asko daude ilea berritzeko: ilerako botoxak ilea barrutik osatzeko eta berreskuratzeko balio du, baina hau epe luzeagorako da. Ilerako plasma ilea berregituratzeko da. Hau segituan nabaritzen da, saio batean, baina ileko azken geruzan baino ez du eragiten. Ileari berniz moduko bat ematen dio. Ilean edozein tratamendu estetiko egin aurretik, honen kalitatea zaintzea da gure lema.



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Ikasturte hasieran, Elorrioko ikasleek eraberritua izango dute eskola publikoko lehenengo solairua

Eskola publikorako lanek 663.000 euroko aurrekontua izango dute; bidea egokitzeko, ikastetxeko lehenengo solairua berrantolatzeko, irisgarritasuna hobetzeko, Haur Hezkuntzako sarrera atontzeko eta erabilera anitzeko pabilioian komunak ipintzeko lanek

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Uda garaia sasoi ona izaten da urtean zehar egin ezin daitezkeen lanak egiteko, eta, azken asteotan, beharginak buru-belarri dabilta beharrean Elorrioko Eskola Publikoan. Urte hasieran onartutako aurrekontuetan azaldutako moduan, gaztetxoek udako oporrak hartu bezain laster eskola publikoko lehenengo solairua eraberritzen hasi ziren Elorrion, eta lanak irail er-

eginez ekin zioten. "Udan eskolako lehenengo solairua berrantolatu dugu. Eraberritutako solairuan instituturako hiru ikasgela berri egongo dira, eta baita aldagelak eta biltegi berriak ere. Ikastetxeak zein

errugbi taldeak erabiltzeko izango dira", esan du Buruagak. Horrez gainera, eskola osteko irisgarritasuna ere hobetu dute. Bestalde, urtea amaitu aurretik Haur Hezkuntzako sarrera konpon-

duko dute eta erabilera anitzeko pabilioian komunak ipiniko dituzte. Lan hauen aurrekontua 663.000 eurokoa da eta lanak urte amaierarako amaitatuta izatea aurreikusten du Elorrioko Udalak.



Aldagela eta biltegi berriak eta hiru ikasgela izango dituzte eskolako lehenengo solairuan

dialderako amaituta egongo direla adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

Proiektuaren asmoa eskola eta honen inguruak atontzea da. Egitasmoa zenbait fasetan dago bantuta eta eskolara bidean lanak

Eskola eta honen inguruak eraberritzen dabilta Elorrion.

Atxondoko ludotekan "hainbat bider baimenik barik" sartu direla salatu dute

ATXONDO • A.M./M.Z.
Abuztuan ludotekan "hainbat bider" sartu direla salatu dute Marixurriko kideek. Ludoteka "hankaz gora" utzi dute eta leiho bat apurtu dute. Hori horrela, herritarrei laguntza eskatu diete, kalteak eragin dituztenak identifikatzeko. "Ez dugu zigorrik gura, baina bai errespetua", adierazi dute.

Herritarrengan kontzientzia piztu gura izan du Marixurri-keek, eta lokala zaintzeko deia zabaldu du: "Herria bizirik gura

Herritarrengan kontzientzia piztu eta lokala zaintzeko dei egin du Marixurri-ke

dugu, herria maite dugulako, eta bide horretatik lanean jarraitu gura dugu zuekin batera. Baina, horretarako, guztiok gure aletxoak jarri beharko dugu herriko zerbitzuak zaintzeko".

Jose Antonio Agirre parkeko jolas eremua estaltzeko obrak irail hasieran esleitu dute

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO
Zaldibarko Udalak iraileko lehenengo astean egingo du Jose Antonio Agirre parkeko jolas eremuko estaldura lanak esleitzeko deialdia. Guztira, 90.716, 70 euroko aurrekontua du obrak, eta ia %30 Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko du (26.546, 93 euro). Obra honen bitartez, jolas eremua eurtik babestea gura du udalak. Estalkia segurtasunezko beirazkoa izango da eta eguzkirako iragazkia

Obrek 90.716 euroko aurrekontua dute, eta ia %30 Aldundiak ordainduko du

edukiko du. Bide batez, inguruetan beste obra batzuk ere egingo dituzte.

Jose Antonio Agirre parkeko jolas eremuaren obra herriko parkeak hobetzeko hartutako neurrien artean dago.



Jose Antonio Agirre jolas eremua.



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



A. Urreta
podólogo

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Arkeologoak irailean hasiko dira Otxandioko plazan indusketak egiten

Plaza eraberritzen hasi aurretik, zorupeak zer aztarna gordetzen duen ikertuko dute



Batez ere, pilotalekuko zorua eta hormak konponduko dituzte.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Martxan da dagoeneko udaletxe pareko plaza eta pilotaleku irekia eraberritzeko proiektua. Fase nagusi bitan egingo da. Lehenengo, indusketa arkeologikoak egingo dituzte, eremu horretako lurpeak zer gordetzen duen jakiteko. Horren ondoren, eraberriketara lanei ekingo diete.

Oraingoan, plazako harlauzak kendu eta eremua arkeologoen-tzat prestatu dute. Hauek iraileko bigarren hamabostalditik aurrera hasiko dira lanean, Otxandioko Udaletik jakinarazi dutenez. Ikerketa lanek bi-hiru hilabete iraungo dutela aurreikusten da. 2014an

Oraingoan, plazako harlauzak kendu dituzte eta eremua prestatu dute arkeologoak datozenerako

plazako beste bati bat eraberritu zuten, udaletxe aldekoa. Orduan ere indusketa lanak egin zituzten, eta Erdi Arotik gaur egunera arte Otxandiok izan duen garapena ulertzeko hainbat aztarna aurkitu zituzten. Aurkikuntza guztiak txosten batean jaso zituzten.

Eraberritze lanak

Eraberritze lanei dagokienez, pilotalekuari ez diote gaur egungo itxura aldatuko. Batez ere, zorua eta hormak konponduko dituzte, bes-telako lan batzuk egiteaz gainera. udalak Eusko Jaurlaritzatik 300.000 euroko diru-laguntza jasoko du hiru urtean lanak egiteko.

2014an plazako beste zati batean egindako indusketek hainbat aztarna bistaratu zituzten

Otxandiarrek alkateagaz batzeko aukera dute, egunero goizez eta astean birritan arratsaldez

OTXANDIO • J.D.

Astelehenetik aurrera, Egoitz Garmendia alkatea lanaldi osoan hasiko da udaletxean. Beraz, aurreko alkateek baino denbora gehiago eskainiko dio beharrari. Horregaz, hainbat helburu bete gura dituzte; tartean, herritarrekin harreman

zuzenagoa eta jarraiagoa izatea. Ildo horretatik, erakundearen eta herritarren arteko hartu-emana estutzeko, otxandiarrek alkateagaz hitzorduak eskatzeko aukera izango dute. Goizetan egunero dago horretarako aukera, astelehentik barikura. Arratsaldetan,

ostera, martitzenetan eta egunetan batu ahalko da alkateagaz, beti ere hitzordua aurretik eskatuta badago. Horretarako, nahikoa da udaletxera deitzea edo honako helbide elektronikora idaztea: alkatetza@otxandio.eus.

Mañariko kirolguneko araudiari buruzko batzar irekia egunean

Udalak kirolguneko funtzionamenduaren gaineko araudia landu du. Ildo horretatik, parte-hartze saioa egingo dute herritarrekin, azalpenak eman eta ekarpenak jasotzeko

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Kirolgune berriko funtzionamendua zehaztuko duen ordenantza indarrean jarri aurretik, landu duten proposamena herritarrekin partekatu gura du udalak. Horrela, parte-hartze saio bat egingo du datorren asteko egunean, 18:30ean, Mañariko udaletxeko udalbatzar aretoan. Bertan, araudiari buruzko azalpenak eman, dudak argitu eta herritarren ekarpenak jasoko dituzte.

Batzarraren ondoren ere, iriz-tziak eta ekarpenak jasotzeko

aukera egongo da udaletxean, irailaren 23ra arte. Prozesu horren ondoren, ordenantza indarrean jarri eta kirolgunea ahalik eta arinen martxan ipintzea da helburua. "Proba moduan, urri hasieran zabaldu gura dugu", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak.

Aldaketarik egon ezean, kirolgunea egunero egongo da erabilgarri, 07:00etatik 23:00etara. Prezioei dagokienez, ikasleentzat eta langabeentzat kuota bereziak ipiniko dituzte.



Kirolgunea egunero zabalik egotea gura dute.

Mallabian xake ikastaroak eskainiko dituzte gazteentzat, lehenengoz

MALLABIA • J.D.

Mallabia kirol elkarteak nobedadeekin hasiko du ikasturtea. Irail erditik aurrera, iraileko eta urriko bariku denetan, xake ikastaroak eskainiko dituzte gazteentzat Mallabiko eskolan. Jende nahikoak parte hartzen badu, Urriko Jaiei barruan gazteen xake txapelketa antolatuko dute, lehenengoz. "Gure eskaintza handitu gura genuen eta xakearen aldeko apustua egin dugu", dio Juan Carlos Perez elkartearen kideak.

Mugarra elkarteak Saibigain-Iturriotz guneko ehiza paseak zotz egingo ditu

IZURTZA • J.D.

Mugarra Ateneo elkarteak Saibigain-Iturriotz guneko iraileko eta urriko baimenen zozketa orokorra egingo du irailaren 13an, 20:00etan, Mañariko udaletxean. Eskaerak hilaren 11ra arte aurkeztu daitezke. Azaroko eta abenduko baimenen zozketa irailaren 27an egingo dute. Eskaera orriak Izurtzako Herriko Tabernan eta Antonio Txiki okindegian, eta Mañariko Errekondo jatetxean jaso zein entregatu daitezke.

DIBA

KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango

946 810 776

info@hitzliburudenda.com

1^o

BASA
Miren Amuriza (Elkar)

2^o

HEZURREN ERRETURA
Miren Agur Meabe (Susa)

3^o

MAITASUN KEINU BAT BESTERIK EZ
Hasier Arraiz (Erein)



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

San Migel auzoko eskola zaharra berritu eta gizarte-etxe bihurtuko dute Zornotzan

Auzo elkarteak bere beharrianetarako erabiliko du



Auzo elkarteak gizarte-etxe moduan kudeatuko du eraikina.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Udalak hasi ditu San Migel auzoko eskola zaharra eraberritzeko lanak. Lanek sei hile inguru iraungo dutela jakinarazi dute udaletik. Ondoren, San Migelgo auzo elkarteak gizarte-etxe moduan kudeatuko du eraikin eraberritua.

Auzoko jaietako zein urtean zehar egin gura dituzten ekintzak hartzeko gunea izango da.

Asmo honek aurrekontu parte-hartzaileetan du sorburua. Auzotarrek sasoi bateko eskola eraberritzea proposatu zuten eta udalak 162.000 euroko diru-atala bideratu

du aurtengo aurrekontuan proiektua gauzatzeko.

Egurrezko teilatu berria

Proiektuaren arabera, teilatu berria egingo dute. Teilatuak zurezko egitura izango du, eta teila gorriekin jantziko dute. Horrela, lehen zegoen teilatuaren itxura mantenduko du. Horrez gainera, leiho eta ate guztiak aldatuko dituzte eta zorua zein hormak zaharberrituko dituzte.

Proiektuak 162.000 euroko aurrekontua izango du; lanek sei hile inguru iraungo dute

Energia berriztagarriak erabilita, girotze termikorako sistema berria jarriko dute

Gainera, energia berriztagarriak erabilita, eraikinak girotze termikorako sistema berria izango du aurrerantzean. Ekipamenduari dagokionez, komun egokitu bat egingo dute eta konketa bat gehituko diote.



Abeletxe kaleko farolak aldatuko dituzte.

Berrizko hainbat kaletan argiteria aldatuko dute irailean

Herriko efizientzia energetikoa hobetzeko asmoz, Berrizko argiteria aldatzeko seigarren fasea ipiniko dute martxan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko energiaren efizientzia hobetzeko asmoz, Berrizko Udalak seigarren fasea hasiko du irailean. Aldaketa Matzagabarrena eta Abeletxe kaleen inguruan egingo dute.

Udalak jakitera eman duenez, LED argidun 60 farola ipiniko dituzte, eta, horregaz, kontsumoa

aurrezteaz gainera, argi kutsadura ere murriztuko dute. Fase honetarako, 104.156 euroko aurrekontua izango du Berrizek, eta lanak hiru hileko epean amaitzea aurreikusten dute.

MARMO LGINTZA - HAR LGINTZA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM
INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORNOTZA / BIZKAIA



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



“Bigarren pelikula izan arren, zentzu askotan lehenengoa dela ematen du”

Lara Izagirre zornotzarraren bigarren film luzea, 'Nora', euskarazko road trip bat izango da; grabatzen dabilta orain



**Lara Izagirre
Garizurieta**

Zinema zuzendaria
Zornotza | 1985

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

Lara Izagirre zuzendaria 'Nora' bigarren film luzearen grabazioan murgilduta dago azken asteetan. 'Un otoño sin Berlin'-eko drama alde batera utzi eta komedia besarkatuko du 'anti road trip' lez definitu duen lan berri honetan.

Nor da Nora?

Nora Zornotzako neska bat da, 30 bat urtekoa. Bere ametsa bidaia kazetaria izatea izan da beti, eta kottxe zahar batean bidaia bat egiteko aukera irten zaio. Azken urteetan, gura ez zituen gauza batzuk egiten ibili da, eta aukera irten zaionez, guk 'anti road trip' deitzen diogun hau egiten hasi da. Horrela deitzen

diogu ez zaiolako bidaia oso ondo irtengo. Ez da urrun helduko, baina esperientzia handiak bizitzeko batzuetan ez dela urrun joan behar adierazteko modua da gurea.

Dramatik komediara egin duzu jauzi pelikula honetarako.

Bai, aurrekotik urrundu gura nuen. *Un otoño sin Berlin*en gidoiak bazituen komedia ukitu batzuk hasieran, baina proiektuak aurrera egin ahala beste forma bat hartu zuen: komedia guztia bidean galdu zuen eta pelikula dramatiko bat geratu zen. Oraingoan, alderantziz izatea gura nuen. Batez ere, komediazko gidoi bat idatzi gura nuen, arinagoa eta argiagoa, alde dramatikoarekin izango zuena. Gidoitik hasita, bes-

telako prozesu bat izan da, baina azpian dagoena, kontaktu dudana eta kontatzeko modua, berdina izan da. Emozioetara joango den pelikula bat izango da, ez komedia arrunt bat.

Idazterakoan, igarri duzu presiorik?

Bai, nik neure buruari jarritakoa. Askok sufritu dut gidoia idazterakoan. *Un otoño sin Berlin*en ez zitzaidan horrelakorik gertatu, ez nuelako uste grabatzera helduko nintzenik. Bigarren pelikula izan arren, zentzu askotan lehenengoa dela ematen du, oso desberdina delako: nire lehenengo pelikula da euskaraz, road trip bat, komedia bat... Orain, oster, lasaiago nago. Grabazio aldetik, lan konplexua du-

gu aurretik. Autoan grabatu behar dugu, baita platoan ere, eta gauza berri asko egingo ditut, baina oso talde ona dugu, sekulako ilusioa duena. Ane Pikazagaz hainbat hile egin ditut gidoiaren azken zatian lanean, baina grabaziora presiorik barik heldu naiz. Bost urte eman ditut pelikula berri bat grabatzen. Bost urtean behin grabatzen badut, ezin dut presiorik eduki; disfrutatu beharreko zerbait bilakatzen da.

Zornotzan grabatu duzue, besteak beste.

Hiru astean egon gara Zornotzan grabatzen. Ahal dela, herriari keinu egitea gustatzen zait. Gainera, hain izaera eta arkitektura mistoa duen herria denez, herri bakar ba-

tetik bost herri atera ditzakegu. Argazki zuzendaria ere bertakoa da, eta horrek asko errazten du dena.

Emakumeen presentzia nabaria da lantaldean.

Nora pelikulan emakumeok darabagu indar kreatiboaren pisua. Ni zuzendaria eta gidoilaria naiz, produkzio eragilea eta zuzendaria ere emakumezkoak dira, eta baita arte zuzendaria eta soinu bandaren egilea ere. Hori oso garrantzitsua da, eta, zoritxarrez, oso desberdina da. Gaur egungo zinemaren errealtatean, emakumeok emakumeen istorio bat kontatuko dugu, eta horrek desberdina egiten du pelikula. Niri naturalki irteten zait horrela, baina badago berdintasunaren aldeko apustu bat ere, estrategikoki planteatuta egon behar den zerbait

“**Zenbat filmetan dira emakumezkoak zuzendariak? Hori arazo bat da, etxean ere badaukaguna**”

dela uste dudalako. Berdintasuna oinarri moduan planteatzen ez baduzu, pelikulek ez dute berdintasunik erakutsiko. Gizartearen erdiak zeresana dugulako, noski. Zine-aretoetara goazenean, zenbat filmetan dira zuzendariak emakumezkoak, edo zenbatek parte hartu dute alde kreatiboan? Hori arazo larria da, eta etxean ere badaukagu. Hor apustu bat egin behar da, Garizatik egin duguna. Proiektuak egin ahala ikasi dugu; aukera desberdintasunaz ohartu ginen, eta neurriak hartu genituen estrategikoki berdintasunaren alde egiteko. Eta hori ona da zinemarentzat eta gizartearentzat, ez bakarrik emakumeentzat.

Hemen elkarteko kidea ere bazara.

Orain hiru urte sortu zen elkartea, zinearen munduan lan egiten dugun emakumezko profesionalak hor gaudela erakusteko, batuta oso indartsuak garelako. Errealitate hori laster irtengo da, ibilbide horretan orain ematen ari diren pausoak ez direlako nahikoa hamar urte barru egoerari buelta emateko.

 **Smurfit Kappa**
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

 **Smurfit Kappa**
Nervión

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Uxue Montecelok urteak bete zituen abuztuaren 11n. Mosu handi-handi bat bidali nahi diogu familia guztiaren partez. Zorionak, prexiosa!



Uztailaren 30ean 5 urte bete zituen **Oihane**k. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko danon partez.



Kuadrillako errabinue, 30etarako bidie hartu eta sorgin bille dabilkiu... Neskatan okupaute zabixela dakigun arren, beti izengo za gure laztana! Zorixonak eta mosu ugeri nesken partez!



Ondo pasa zure urtebetetzean eta jarraitu beti bezain alai eta irrifartsu.



Zorionak, **Eder**, zure bigarren urtebetetzean, aita Unai, ama Izaskun, Luzia, aitteitte Karlos eta Ramon, amama Enkarna eta Begoña, Irati eta Endikaren partez. Egun polita izan.



Gure villano faborituek 26 bete deuskuz. Zorixonak, gipuzki! Bizkaitarra ez zarenetik, BigData lar eta satelite kontu gitxi. Egunen baten ilargire erungo gaituzule amesten segitzen dun maitalien partez, pekatuz betetako mosu pillue!



Abuztuaren 30ean **Natalik** 6 urte bete zituen. Zorixonak, laztana!



Zorionak, printzesa! Ederto baten ospatu zure eguna, asko maitte zaittugu! Muxu erraldoi bat!



Zorion bero-bero bat etxeko izar distiratsuari! Patxo mordoa!



Abuztuaren 24an, Oromiñon, **Idoia** eta **Toni** ezkondu ziren. Egun ederra benetan! Zorixonak, bikote!



Ondo pasa zure urtebetetzean. Musu asko eta besarkada handi bat. Inhar, Eider eta Rakelen partez.



Zorionak, **Gaizka**! 40 urte! Muxu handi bat etxeko bi sorginen partez.



Zorionak, **Martin**! Urte bi bete dituzu bazterrak nahastu! Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez!



Eiderrek 9 urte beteko ditu abuztuaren 31n. Zorionak eta musu handi bat aitaren, amaren eta Inharren partez.

"Autoen munduan oraintxe nabil gehien gozatzen"

Garai bateko kanpo exigentziarik barik, baina betiko garaipen goseagaz, hainbat modalitatetan dihardu Igor Urien pilotuak



Igor Urien —ezkerrean— eta Gabriel Alonso, Valentzian irabazitako erresistentzia proba irabazi eta gero.

AUTOMOBILISMOA • JOSEBA DERTEANO

Gazteagotan, automobilismoaren promesa izateak zekarren zama bizkarreratzea egokitu zitzaion Igor Urieni (Abadiño, 1994). 3 Formularen lehiatu zen, bere itxaropena eta bere alde apustu egindako guztia betetzeko presioagaz. Amaitu zen etapa hura, eta gaur egun beste modu batera bizi du autoen mundua. Bolantean gozatzea du helburu bakarra, zainetan daraman irabazteko grinari uko egin barik. "Oraintxe nabil automobilismoaz gehien gozatzen. Lehen, lan moduan hartzen nuen gehiago. Orain, beste mentalitate batez nabil", azaldu du.

Zenbait diziplina eta auto probatzen dabil, besteen aginduetara batzuetan, eta bere proiektu propioak martxan jarrita besteetan. Industria arloko ingeneritza mekaniko ikasketak amaitu berritan, ez du bere benetako pasioa alde batera uzteko inongo asmorik.

Erresistentzia txapelketa

Espainiako pilotuen rankingean izendapenik gorena du Urienek. Zigilu hori dute estatuko piloturik onenek. Horregatik, Espainiako Erresistentzia Txapelketan dabilen Gabriel Alonso pilotu argentinarak behin baino gehiagotan jo du Urienengana, bere talentuaren bila, eta abadiñar gazteak ez die aukera horiei muzin egiten. Batak bere baliabideak jarri ditu mahai gainean, eta besteak bere eskuak eta esperientzia. Biek elkarrengatik, baina batez ere Urienen dohaien eskerrak, Valentziako lasterketa irabazi dute aurtun. Gainera, lehiakortasunaren mesedetan, goi maila

**Ginetta autoagaz
Espainiako mendiko
txapelketan parte
hartu gura du Urienek**

lako gidariei jartzen dizkieten denbora penalizazioei aurre egin behar izan die Urienek. "Gero, gorriak eta bi egin behar izaten dira pistan denbora hori erreuperatzeko, baina horrek motibatu egiten nau", dio.

Iaz Peugeot autoen erresistentzia probarik garrantzitsuenan parte hartzeko aukera izan zuen, Frantziako Magny Cours zirkuituan. Bosteko taldetan banatuta, gidariak erreleboak aritu ziren, 24 orduan geratu barik. Gaueko errelebo guztiak egitea egokitu zitzaion Urieni. "Ez dut bizi osoan hainbeste kafe hartu. Erreleboak amaitu, hiru ordu lo egin eta autora bueltatzen nintzen. Gogorra da gauez lehiatzea", gogoratu du. Baina ez dago kexatzeko. "Oso esperientzia polita izan zen", esan du.

Istripua Citroen AX-gaz

Noizean behingo erresistentzia lasterketekin batera, Euskal Herriko Igoeren Txapelketan aritu izan da

eta antzerakoei irabazten genien. Ikaragarri disfrutatzen nuen", azaldu du. Abentura bide onetik zihoan, iaz Oñatiko lasterketa heldu zen arte. Irabazi egin zuen lasterketa lehenengo txandan egindako denborari eskerrak, baina bigarrenetan autoari malgukia apurtu zitzaion eta istripua izan zuen. "Kolpe gogorra hartu nuen. Hainbat saihetsetan zartadurak izan nituen", gogoratu du. Baina ez da geldi egoten dakien mutila. Handik hiru astera, Peugeot-en erresistentzia proba jokatu zen eta ez zuen hutsik egin.

Etorkizuna, Ginetta autoagaz

Orain, beste proiektu berri eta "ilusio handiko" bat du esku artean. 360 zaldi dituen Ginetta G50 GT4 auto bat eskuratu du eta haregaz Espainiako mendiko txapelketan parte hartzea du helburu. Aurtun lasterketa solteren bat, eta datorren urtean denboraldi osoa. Lehiakortasun "handiko" txapelketa dela dio eta horrek "motibatu" egiten duela. Gainera, Espainiako txapelketa horretako hainbat proba Europako puntuagarriak dira eta horrek erronka "are interesgarriago" bihurtzen du, Urienen esanetan. Autoa probatu du eta oso sentsazio onak utzi dizkio. "Gozamena da. Beste auto batzuen aldean zaldi gutxiago ditu, baina arinagoa da, eta aproposa igoeretakoa bide estuetan aritzeko", argitu du.



Ginetta auto bat eskuratu du eta orain arteko probetan oso sentsazio onak izan ditu.

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

**BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA**

info@aldekoaotalora.com

Zubiakurre, 8 IURRETA

946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

merkataritza gida **sarean** anboto.org/gida

**Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida euskaraz eta sarean!**

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(burtsan SOCI)

Bizikume txirrindulari elkarteak bizikleta irteera antolatu du irailaren 15erako

Elorriion abiatu eta eskualdeko hainbat herritatik ibiliko dira



Nafarroan sortutako elkarteak Bizkaira, Gizpuzkoara eta Arabara hedatu da azken urteetan.

TXIRRINDULARITZA • J.DERTEANO

Emakumez osaturiko Bizikume txirrindulari elkarteak orain bost urte sortu zuten, Nafarroan. Zaletasuna partekatzen duten emakumeei topagune bat eskaintzea du helburu, bizikleta irteeretan elkarregaz parte hartuz.

Elorriion hasita, bizikleta irteera bat antolatuko dute Durangaldean laster, Elorrioko Txirrindulari Elkartearen laguntzagaz. Irailaren 15ean izango da lehenengo aldi hori. Irteera baino ordu erdi lehenago jarri dute hitzordua, 09:30ean, Elorrioko Herriko Plazan. 70 kilometroko ibilbidean, Zaldibartik, Areitiotik, Garaitik, Abadiñotik, Arrazolatik eta Kanpazarretik ibiliko dira.

Emakumezkoek zein gizonetzkoek parte hartu dezakete. Izen-ematea hasita dago, yosoyciclista-com webgunean, 'irteerak' atalean. Gura dutenek elkarregaz bazkaltzeko aukera ere izango dute. Irailaren 7a da bazkarirako izena emateko azken eguna, honako helbide elektronikoan: leireaa1972@gmail.com.



Iazko aldiko irudia.

Iñaki Lejarreta gogoratuz, bizikleta ibilaldia asteburuan

BIZIKLETA • J.D.

Iñaki Lejarreta ziklista berriztarrak 2012an hil zen, errepidean entrenatzen zebilela auto batek harrapatuta. Harrezkero, bere memoria gordetzeko helburuz, bere gertukoek Iñakirekin Bideak izeneko bizikleta ibilbidea egiten dute urtero. Aurtengoa, 7. aldia, asteburuan izango da. Berrizko Elizondo plazatik irtengo dira, zapatuan, 04:00etan, eta Euskal Herriko hainbat toki igaroko dute domekan, 16:00 aldera.

Jokaldia

Gotzon Gomez Barrenetxea Errugbia



Mundialaren zain

Irailaren 20an emango zaio hasiera Errugbi Mundialari. IX. edizioa izango da eta Japonian jokatu da. Lau urte pasatu dira Zeelanda Berriak bere hirugarren txapelketa eskuratu zuenetik, eta gauzak asko aldatu diren arren, All Blacksak ditugu faborito nagusi berriz ere.

Gauzak asko aldatu dira nire aburuz, eta azaltzen saiatuko naiz. Alde batetik, ematen du Hego Hemisferioko eta Ipar Hemisferioko taldeen arteko alde laburtu egin dela. Lau urte hauetan Zeelanda Berriko jokalariek zailtasunak izan dituzte europarrak garaitzeko. Honetaz gain, galestarrek lortu dute World Rugby sailkapenean lehenengo postua eskuratzea aspaldiko partez, zeelandarren nagusitasuna zalantzan jarritz.

Aldi berean, aurreko Mundialean etxean jokatu arren, porrot galanta izan zuen Ingalaterrak, baina bloke sendoa osatzen joan da eta aurrelari indartsuak ditu.

Irlandak, azkenaldian maila apur bat jaitsi duela dirudien arren, talde sendoa, gogorra eta eskarmentu handikoa du. Ezkutu-tuan ditugu Frantzia zein Eskozia. Frantziarrek aspaldiko partez ez dute beraianengan espero den mailarik ematen, baina edozeini ezustekoa eman diezaioke. Eskozia, aldiz, gora egin du azken lau urte hauetan.

Hego hemisferioan, Hegoafrika sasoi onean dagoela ematen du. Eskarmentu handiko jokalariek eta gazteak uztartu dituzte taldean, eta hor goian egongo direla ziur nago.

Aurreko guztia esanda, nik oraindik Zeelanda Berrikoak ikusten ditut faborito. Eskarmentu handiko entrenatzailea dute, Hansen azeri zaharra, jokalaria trebeak, izaera handikoa, baina, batez ere, taldea dira eta harrotasunez defendatzen dute kamiseta beltza.

Asteko kirolaria

“Etxeko errepideetatik pasatzen diren etapak oso bereziak izaten dira beti”

Euskadi-Murias taldeko Mikel Bizkarra mañariarra Espainiako Vuelta lehiatzen dabil

Mikel Bizkarra mañariarra bere bigarren itzuli handia lehiatzen dabil. Euskadi-Muriaseko txirrindularia gogotsu dago Espainiako Vuelta on bat egiteko.

Zapatutik hona Espainiako Vuelta lehiatzen zabilta. Zer moduz doa lehenengo lasterketa egun hauek?

Egia esanda, lehenengo egunak, batez ere taldekako erlojupekoa eta bigarren etapa, tentsio handikoa izan dira. Egun horietan ez naiz oso ondo sentitu, baina dagoeneko beste lasaitasun bat sentitzen da tropelean, eta askoz ere erosoago nago. Gainera, aste hasierako etapak lauak izan ziren eta lasai hartu nituen. Orain,

ostera, mendiko etapak datoz eta aurrean ibiltzea itxaroten dut. **Aurtengoa bigarren itzuli handia duzu. Iazko esperientziak balio du aurtengorako?**

Jakina. Iazko Espainiako Vueltak konfiantza eman zidan, batez ere. Hiru asteko itzuli batean ondo moldatu naitekeela ikusi nuen, egunetik egunera ondo errekupekatzen naizela, eta, beraz, bigarren eta hirugarren astetan lehiakorra izan naitekeela. Esperantza horregaz, aurtun konfiantza gehiagoraz etorri naiz, eta gorputzak iazko moduan erantzutea itxaroten dut.


Iaz Oskar Rodriguezegaz etapa garaipen bat lortu zenuten Espai-

niako Vueltan. Aurtengoa beste garaipen bat lortzea dela taldearen asmoa entzun izan dizugu sarritan.

Nahiko talde indartsua daukagu, aldats gora ondo moldatzen garen hainbat txirrindulari gaude eta. Gainera, Vuelta oso gogorra da, hainbat etapa menditsukoa. Beraz, etapa horietan indartsu dagoen taldekideren bat ihesaldirer batean sartzen ahaleginduko gara. Ea ihesaldi horiek helmugara heltzen diren eta etaparen bat lehiatzeko moduan gauden.

Eta zein da Mikel Bizkarraren helburua Vuelta honetan?

Taldearen helburu bera. Etapak aztertu ditut eta hainbat ditut gorritz markatuta. Vuelta gogorra



MIKEL BIZKARRA ETXEGIBEL

Mañaria, 1989

da, eta, alde horretatik, zortea dut. Beraz, indartsu banago, etorriko dira aukerak.

Euskal Herriko errepideetatik pasatuko da Espainiako Vuelta. Ilusio berezia duzu etapa horiei begira?

Etxeko errepideetatik pasatzen diren etapak oso bereziak izaten dira. Iaz, Oizen izan genuen etapa amaiera, eta oso berezia izan zen. Seguru nago Bilbon amaituko den etapa oso polita izango dela, eta baita hurrengo egunean San Mamesen irtengo den etapa ere.



**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

//AUKERA
BERRIZ: 155 m². 3 solairu igogailuarekin. 4 logela, 3 komun, sukalde-jangela eta egongela tximiniarekin. Estudioa. Trastelekua. **160.000€.**
TABIRA: 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. Kanpora ematen du. **185.000€.**
DURANGO: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. **130.000€.** Negoziagarria
KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. **99.000€.**
IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1. mailako materialekin berritzatua. **97.500€.**
ZALDIBAR: 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatua. **98.000€.**
//ETXEBIZITZAK SALGAI
TABIRA: Duplexa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 132 m²-ko terraza. 52 m²-ko Etxabe gardena bainugelarekin. Garaje itxia.
KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **186.000€.**
ARTEKALE: Erdigunean. 83 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Igogailua. **178.000€.**
GAZTELUA: Lursaila. 26.044 m². 6 partzelatan banatua. Fruta arbolekin (600 sagarrondo zenbait partzelatan)
MATIENA: Laubideta. 3 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ikuspegiakin. Eguzkitsua.
J.A. AGUIRRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **250.000€.**
TROMPERRI: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garaje itxia. **292.000€.**
IURRETA: 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko prest. Eguzkitsua. **115.000€.**
ERRETENTXU: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. **240.000€** negoziagarria.
ATXONDO: 85 m². 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. Garajea. Txokoa. Berriztatua. **148.000€.**
SAN INAZIO: 100 m². 3 logela, 2 komun, horma-armairuekin, sukalde handia eta egongela handia. Terraza. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. ALOKAIRUA EROSTEKO AUKERAGAZ. **256.000€.**
ABADIÑO: Familiabakarra. 484m². 1.000 m²-ko lursaila eraikitzeiko aukeragaz.
ERDIALDEAN: 100 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Garajea aukeran. **229.000€.**
ERROTARITXUENA: Apartamentua. Etxe osoak kanpora ematen du. Terraza. Garaje itxia. **220.000€.**
IURRETA: 111 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m²-ko terraza. Garajea eta trastelekua. **276.000€.**
BERRIAK ESTREINATZEKO: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Ganbara. Garajea aukeran. **153.000€.**
BERRIZ: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **65.000€.**
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
TABIRA: 30 m²-ko garajea. Argiarekin eta urarekin.
ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000m²-tik aurrera garajeak.
ABADIÑO: 160 m². Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan. **185.000€**
ABADIÑO: 75m². **75.000€.**
ZALDIBAR: Salgai. Ganbara zabala. Bulegoa edo estudiorako egokia. 24-35m². Ekonomikoa.
F.J. de ZUMARRAGA: Aukera. 114.000€.
SALMENTA. **150.000€.** Negoziagarria.

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO: Antzo Eztegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Eraikiberria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000€-tik hasita.
DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.
DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezinhobea.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. MERKEA.
IURRETA: Maspe kalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.
ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.
//LURSAILAK SALGAI
Gaztelua: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Lekuonean. Egokia.
ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeiko baimenagaz. Zonalde egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzeiko lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA: EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzeiko lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
ABADIÑO: Bifamiliarra salgai. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berritzatzeiko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000€
ATXONDO: Baserri ikusgarria Martza auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berritzuta. Zonalde egokia.
BERRIZ: Murgoitio auzoa. Bifamiliarra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela eta 6 komun. Garaje bikoitza. 12.000 m²-ko lursaila. Leku ezin hobean, Anbotora begira.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra. Berriztatzeiko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeiko.
BERRIZ: Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. 3 hektareako lursaila.
//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO 40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

**Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

**DURANGO**
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Eraikuntza berria. 3 logela. Ganbara eta garajearekin.
285.000€

**DURANGO**
4 logela
2 komun
110 m²
SASIKOA: 110 m². 4 logela, egongela, sukaldea jantzita eta 2 komun. 2 balkoi. Berogailua. Igogailua. Ganbara. Garajea.
195.000€

**MATIENA**
3 logela
2 komun
MATIENA: AUKERA PAREGABEA. 3 logela, egongela, sukaldea jantzita eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Garajea zuzeneko sarbidearekin.
182.000€

**MAÑARIA**
20,041 m²
MAÑARIA: Eraikitzeiko lurra, 20.041 m². Kokapen ona eta ikuspegi ezin hobea.
169.500€

**DURANGO**
4 logela
100 m²
DURANGO: Goien. 100 m². 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gas naturaleko berogailua. Garajea aukeran.
150.000€

**DURANGO**
3 logela
3 komun
DURANGO: Kalebarria. 3 logela, egongela, sukaldea jantzita, eskegitokia eta 3 komun. Ganbara.
129.000€

**AGENCIA INMOBILIARIA**
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

//DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E
ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran
EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua.. **260.000€** / E.E.Z=E.
EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / ORAIN **300.000€** / E.E.Z=F
KALEBARRIA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela. **82.000€** / E.E.Z=G
KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean
MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000€.** / E.E.Z=F
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeiko 600m² ko lurzorua. **640.000€**
ZEHARKALEA: 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / ORAIN **130.000€** / E.E.Z= E
ZUMALAKARREGI: 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000€** / E.E.Z= E
//ABADIÑO
ARLOZABAL: 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.Z=Bidean
ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576€ / ORAIN **278.000€**/E.E.Z=E
ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Trastelekua eta garajea. **235.000€** / E.E.Z=E
//BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €** / E.E.Z= F
BILBO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 3 komun. Balkoia. LEHEN 195.000€ / ORAIN **160.000€** / E.E.E=E
ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000€ / ORAIN **85.000€** E.E.Z=E
//IURRETA
FAUSTE: Baserria lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G
//MATIENA
TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=F
//OTXANDIO
ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F
OLETA AUZO: Banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000€**/ E.E.Z=E
//BERRIAK
//ELORRIO
BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E

“Pasarelan zelan desfilatu behar den ikasteko bideoak ikusten nabil etxean”

Alexia Gomez Zuazuak Miss Real Model edertasun lehiaketan parte hartuko du. Orain urtebetetik hona 'curvy' modeloa da

Alexia Gomez Zuazua
(Durango, 1980)

• Modeloa

Berba bitan

Hondartza ala mendia

Mendia

Ogitarteko bat

Pamplona txorizo ogitartekoa

Edari bat

Kalimotxo

Pelikua bat

Marvelen edozein

Liburu bat

'Printze Txikia'

Aktore bat

Sean Connery

Musika talde bat

Judas Priest

AKUILUA • JONE GUENETXEA

Edertasun lehiaketan ohiko eredu zailak jartzen duen ekimen batean parte hartuko du Alexia Gomezek, azaroaren 23an, Oviedon. Miss Real Model lehiaketan ez dute neurriek agintzen. Edozein pertsonak parte hartu dezake. Hasi da pasarela bidea prestatzen.

Zelan erabaki duzu 'Miss Real Model' edertasun lehiaketan parte hartzea?

Oso lehiaketa berria denez, momentuz Asturiasen eta Andaluzian daude delegazioak. Andaluzioako delegazioko arduradun bat nire laguna da, eta berak animatu ninduen.

Eta delegaziorik barik, zelan parte hartuko duzu?

Argazkiak nire lagun bati eskatu dizkiot, soinekoa lagun batek egiten nabil...

Zer da Miss Real Model?

'Curvy' modako lehiaketetan neurriak eskatzen dituzte, eta hori nahiko ironikoa da. 'Curvy'-a bazara, suposatzen da estandarretatik kanpora zaudela. Lehiaketa hau neurriarik ipini barik egiten hasi ziren. Lau kategoria daude eta edonor aurkeztu daiteke. Ez dute ez altuerarik ez pisurik eskatzen. 18 urtetik 40 urtera bitarteko pertsonak parte hartu dezakete. Beste lehiaketa asko 18tik 25era bitartekoentzat izaten dira.

Normalean, zein arau izaten dituzte ohiko edertasun lehiaketek?

Altuera minimoa 1'70 m. izaten da. Nesketan hori ez da ohikoena izaten.

Zer nolako jendeak parte hartzen du?

Jende normalak, kalean ikusten dituzun horietakoak. Ez da zertan esperientziarik izan moda munduan. Nik, adibidez, ez dut sekula ere parte hartu.

Baina azken urtean modelo lanetan aritu zara.

Azken hiru edo lau urteetan asko loditu naiz, 30 bat kilo. Ez nengoen ohituta neure burua horrela ikustera, eta nahiko txarto pasatu nuen. Lagun batek proposatu zidan argazkiak ateratzen hasteko, eta gustatu zitzaidan. Argazki horiek ateratzeagatik ez dit inork

ordaintzen. Argazkilariagaz elkarlanean egiten dira. Jende askok arropa uzten dit, irudi horiek publikatzearen truke. Nik interneten publikatzen ditut.

Zelan prestatuko duzu lehiaketa?

Arropa Nafarroako argazkilari batek egiten nabil. Berak oihalak ditu eta beragaz nabil disei-

n a t z e n .

Errazena

denda ba-

ti arropa

eskatzea

i z a n g o

liztateke, baina denda horiek badituzte beste eskaera batzuk. Nik beste era batera egin gura nuen, eta horregatik gabilta gu geu diseinatzeko. Orain, jostun bat beharko dut.

Eta badakizu desfilatzen?

Pasarelan zelan desfilatu behar den ikasteko bideoak ikusten nabil etxean. Ez dut takoi handiegirik aukeratuko. Ez nago ohituta.

Moda munduan, normalean, modeloak gazte hasi eta gazte jubilatzen dira. Zuk kontrako bidea egin duzu.

Hori da benetako aniztasuna, ez bakarrik tailuetan edo neurrietan. Adinean ere aniztasuna behar da moda munduan. Gainera, nik ez dut hau lan moduan hartzen. Ondo sentitzeko egiten dut.



JON SYLDVIA

Lau-hortza

Bixente Aizpurua
Eguren
Irakaslea



Korrontearen aurka

Martxa honetan, laster mundua makinen menpe jarriko dugu. Jarriko dugu diot, geu ari garela gero eta makina sofistikatuagoak egiten, gure onerako izango direla ustea. Etxeko lanak egingo dizkigute, umeak zaindu, konpainia egin, hara eta hona eramane... Baina, ez gara konturatzen gauza batzuetarako onuragarriak izango direla, baina beste askotarako kaltegarriak?

Gizartea gero eta bakartia goa eta berekoiagoa da. Lehengo hurbileko harremanak galtzen ari dira. Gero eta berba gutxiago egiten dugu geure artean, ingurukoengandik urruntzen ari gara eta, zoritxarrez, teknologia berri batzuek horra garamatzate.

Begira zer gertatu zitzaidan abuztuaren erdi inguruan; nik mugikor ximple bat dut, deiak egin, jaso eta oharrak bidaltzeko baino balio ez duena, baina niretzat nahikoa. Urteak ditu eta indarra galtzen ari zenez, aldatzea erabaki nuen. Kontratua daukadan konpainiara joan nintzen eta antzerako bat nahi nuela adierazi nion. Erantzuna; ez daukatela horrelakorik eta zaila izango zela aurkitzea. Zenbait dei egin ondoren, lortu zidan bat. Akaso nire moduko gutxi geratuko dira, eta ez da errentagarria horrelako mugikorrik egitea?

Nik ez dut nahi orduak eta orduak xahutzen dituen eta menpekotasuna sortzen ari den tramankulurik. Berba begietara begira egitea gustatzen zait, eta ez pantaila bati. Kasu askotan, mugikorra gizakiaren beste organo bat bihurtu da eta hau falta dutenean galduta sentitzen dira.

Deskonekta dezagun, jolas gaitzen gure umeekin, berba egin dezagun parez pare, entzun ditzagun naturan sortzen diren hotsak, kontrola ditzagun makinak eta goza dezagun inguruarekin eta ingurukoekin.

DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona** eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaudete. Estás en tu casa

www.sukia.com